


# GINKANA

Emakumeen ahalduntzea  
eta genero berdintasuna



# GINKANAREN HELBURUA

Ginkana honen bitartez, haurrak Euskal Herrian aztarna utzi duten emakumeen istorioak ezağutzera eta honen balioa ulertzera eraman nahi ditugu.

Horretarako, denboran atzera eta aurrera egiten duten esploratzaileak bihurtuko dira jarduera honetan. Ausardia eta konpromisoarekin oztopoak gairditu eta lorpen ugari eskuratu dituzten euskal emakumeen istorioetan murgilduz.

Dinamiken, jokoen eta erronken bidez, ginkanak emakumeen ahalduntzearen balioak zabaltzea du helburu.





# JARDUERAREN AZALPENA

Ongi etorri abenturara!

Gaur egun berezia da, baina arazo handi batekin gatoz. Euskal Herriko emakume ausarten ahotsak isilarazi dira eta ezin dira behar bezala entzun. Hau dela eta, berdintasunaren eta emakumeen indarraren magia galdu egin da.

Historian zehar, Euskal Herriko emakume askok lorpen handiak izan dituzte eta oso garrantzitsuak izan dira gure gizartean. Haien ahotsak eta ekarpenak dira gizartea aurrera eramaten dutenak, baina askotan ahaztu egiten dira. Orain, zuen laguntza behar dugu emakumeei merezi duten lekua emateko.

**Adina:** 7 eta 12 urte bitarteko haurrak.

**Jardueraren iraupena:** 2 ordu.

**Espazioa:** : Leku itxi bat eta zabal bat izan behar da (frontoia, kiroldegia, etab.).



# JARDUERAREN ESTRUKTURA

## **HASIERA**

Parte-hartzaile guztiak puntu nagusi batean bilduko dira. Bertan, dinamizatzaile batek ginkanaren helburua eta dinamika azalduko ditu. Parte-hartzaileak taldetan banatuko dira, eta estazio desberdinak bisitatuko dituzte.

## **ESTAZIOAK ETA ERRONKAK**

Ginkanak 5 estazio izango ditu, bakoitza emakume erreferente bati dedikatua. Estazio bakoitzak emakume batekin lotutako erronka bat izango du, parte-hartzaileek taldean gainditu beharko dutena.

## **PISTA ETA GILTZA AURKITZEA**

Behin erronka gandituta, parte-hartzaileek pista bat jasoko dute eta horren bitartez, emakume horren istorioa sinbolizatuko duen giltza bat aurkituko dute. Giltza horren bitartez, emakumearen istorioa ezagutuko dute.

## **ITXIERA**

Giltza guztiak lortu ondoren, taldeak puntu nagusira itzuliko dira. Giltza horiek “alxor magikoa” irekitzeko erabiliko dituzte.



Jarduera honen bitartez, ikasketak modu aktibo eta dinamiko batean sustatzea dugu helburu. Emakume hauek, inspirazio-iturri izan daitezke haurrentzat, nahi dutena lortu dezaketeela ikus dezaten.

Esperientzia amaitzeko, parte-hartzaile bakoitzak opari sinboliko txiki bat jasoko du, emakume hauen bizipenak islatzen dituen eta berdintasunaren garrantzia gogoraraziko diena.

# ERRONKARI AURRE EGITEKO PREST?

